

MAHAI NEGOZIATZAILEA 21/11/11

Osteguna, azaroak 11n, mahai negoziatzailea izan dugu. Bertan plantillaren gehikuntza, LEP eskaintza eta ordezkagunearen aktibazioaren gaiak jorratu ditugu.

PLANTILLAREN GEHIKUNTZA

Ikasturte honetan lanpostuen zerrendan (RPT) 50 lanpostu gehiago sartzeko proposamena luzatu digute. Lanpostu hauek estrukturaltzat hartuko lirateke. Prozesu hau beharrezkoa da lanpostu hauek lehiaketara ateratzeko. **2017tik 2022ra 312 lanpostu sartu dituzte zerrenda honetan. Hala ere, oraindik 200 bat lanpostu gelditzen dira zerrenda estruktural hauetatik kanpo.**

LABetik ez dela nahikoa azpimarratu dugu.

Administrazioak ekarpenak egiteko tarte utzi duen arren ez du negoziatzeko borondaterik agertu. **Beraz bide juridikoa besterik ez zaigu geratzen.**

COS KONTRATUAK ETA BAKANTE GALDUAK EPAITEGIETARA**Dagoeneko sartu ditugu demandak!**

Badakizue iazko ikasturte bukaeran COS kontratuak epaitegietara eramateko aukera zabaldu genuela.

Epaitegiek oraindik hitz egin ez duten arren, prozesua dagoeneko martxan dago. COS kontratu guztiak lanpostu zerrendan sartu behar ditugu eta administrazioak beste bideei mugak jarri nahi dizkienez, sententzia bidez lortzen saiatuko gara.

Irabaziz gero, langile hauek indemnizatu edo sententzia bidez mugagabe ez finko izaera lortuko lukete eta lanpostuak estrukturaltzat izendatuko lituzkete.

Bakante galduen kasuan, indemnizazio gabe utzi ditu administrazioak eta guk indemnizazioak eskatu ditugu epaitegietan.

Ez dute gehiago gure lanpostuekin jolastuko. Sistema publiko indartsu bat lortuko dugu.

LEP ESKAINTZA

LABetik aspalditik esaten ari gara administrazioak egindako 260 plazen eskaintza ez dela nahikoa. Administrazioak ere badaki, behin behinekotasun tasa maila onargarrietara jeisteko, eskaintza hori zabaldu behar duela.

*Osteguneko mahaian **260 plazen eskaintzari beste 157 lanpostu** gehituko dizkiotela esan digute. Gehikuntza honekin, eskaintza **417 lanpostuetan** geldituko litzateke. 394 HLE, 10 Fisio, 6 O.T., Traskriptore bat eta 6 Z.H.I..*

***LABetik** igoera hau positiboki baloratzen dugun arren, **ez da nahiko** izango gure egoera erregulatzeko, COS bezala ateratzen diren lanpostu guztiak ez baitituzte bakante bihurtuko, ezta lehiaketara aterako. **Beste behin eskatu dugu estrukturalak diren lanpostu guzti-guztiak lehiaketara eramateko.** Deialdi honetan ez bada, hurrengo urteetan eskaintza gehiago egitea eskatu dugu.*

*Honekin batera, **administrazioak, lehiaketa fase soilarekin prozesu hau aurrera ateratzea aztertzen** ari dela esan digu. Azterketarik gabe, merezimenduen bitarteko lehiaketa bakarrik. **LABetik** argi adierazi dugu, aspalditik gabiltzala LEP eskaintza honekin bueltaka eta langileek ziurtasuna behar dutela. **Erabakiak hartzeko nahikoa autonomia** badauka Eusko Jaurlaritzak Madrili begira egon gabe. Berriro ere azpimarratu dugu, azterketa egitekotan langileek denbora behar dutela hauek prestatzeko eta lehen bailehen datak mahai gainean jarri behar direla.*

*Atzo Gasteizko legebiltzarreko osoko bilkuran, **EAJ eta PSOEk ezerezean utzi zuten behin-behineko kontratazioaren abusuarekin amaitzeko Eusko Jaurlaritzaren tresna legal bakarra omen zen***

*Ostegun arratsaldean **Madrilen PSOEk, Unidas Podemosek, ERCK eta EAJk egindako akordioak gure kolektiboan nola eragingo duen azertu beharko dugu.***



ORDEZKAGUNEA

*Dakizuen bezala, aurreko mahaietan **LABetik ordezkapenekin dauden arazoak salatu genituen**. Ordezlagunea gurean ere martxan jartzeko konpromisua hartu zuten. Bide honek prozesuaren gardentasuna bermatzen du.*

***Osteguneko bileran lehen bailehen martxan jartzeko asmoa dutela azaldu digute**. Ordezkapenen funtzionamenduan aldaketa batzuk ekarriko ditu. Tartean zerrenda desberdinetako lanpostuen artean aukeratzeko bidea irikiko luke, baina borondatez lanposturik ez aukeratzeko aukera. Baina arrisku batzuk ere baditu; tartean, ezer ez aukeratuta bortxaz lanpostu bat esleitzea.*

*LABetik argi adierazi dugu ordezkaguneak onurak dituela baina orain arte genituen eskubide guztiak bermatu behar dituela. **Bi dira bereziki larritzen dizkiguten egoerak:***

***1. Gaur egungo ordezkaguneak ez dituela lehen egunetik ordezkapenak bermatzen**. Eskolek eguerdiko 12:30ak arte dute ordezkapenak eskatzeko eta beraz, arratsaldean sortzen diren beharrak biharamunean ez dira betetzen.*

***2. 3 urteko aintzinasunarekin irakasle zerrendetara pasatzeko aukerarik eza**. Ordezlaguneak egoera bakarra jartzeko aukera dauka: lanerako prest, lanean edo justifikatu beharreko ukoa. Hezitzaile bezala lanean egonda irakasle lanpostu bat ezingo litzateke esleitu.*

LABetik bi puntu hauek bermatzea exijitu dugu.

Euskal eskola publiko komunitarioa iruten jarraituko dugu!!